

Gure atletak gora

Aro ederra bizi du Ermuko atletismoak. Ez da nobedadea, azken urteotako bide onaren jarraipena baizik, baina bide on horren konfirmazioa ere bada. Emakumezko zein gizonezkoek saio onak egin dituzte azken txapelketetan eta anbizio handiz ekingo diote denboraldian zehar ezarrita dituzten helburuei.

Estatuko jabalina jaurtitzailerik onenen artean dago Arantza Moreno. Gaztetatik erakutsi duen goranzko ibilbideari eutsi dio eta, are gehiago, aurrerapausoak ematen ari da. Gero eta helburu handiagoak ezartzen dizkio bere buruari eta modu ezin hobean erantzuten die erronkei.

Urtea hasi zenetik bere markak gora doaz lehiatzen den bakoitzean eta Neguko Jaurtiketen Espainiako Txapelketan, urrezko domina eskuratu zuen laugarren aldiz jarraian Montijon (Caceres). Gainera, bere arerioak baino luzeago jaurti zuen jabalina saiakera guztietan, bere nagusitasuna argi era-



Arantza Moreno

kutsiz. Leirian (Portugal) jokatu zen Jaurtiketen Europako Kopan ez zuen hain emaitza onik lortu (10. postuan amaitu zuen sailkapen orokorrean 53,73 metroko jaurtiketarekin), baina oro har sentazio onekin amaitu du neguko denboraldia.

Uztailaren 21 eta 22an Getafen (Madril) jokatu den Aire Libreko Espainiako Txapelketa da Morenok begi artean duen helburuetako bat. Bigarren postuan amaitu zuen iaz Lidia Paradaren atzetik (Estatuko jabalinaren etorkizuna Moreno eta Paradaren eskuetan dago) eta beste pauso bat gehiago eman nahi du aurten. Espainiako Txapelketaz gain, abuztuan Berlinen jokatu den Europako Txapelketan parte-hartzea du helburu ermuarrak, eta bertan ari-



tzeko gutxieneko marka lortzea espero du.

Altuerari beldurrik gabe

Maila gorenera heltzeko bidean dauden beste bi neska ere badira Ermuan. Gaztetxoa da Julene Bouzo, 2003. urtekoa, baina talenturik ez zaio falta. Altuera jauziko 16 urtez azpikoen Euskadiko Txapelketa eskuratu berri du 1,55 metrotan jarritako listaia gaingitu eta gero. Denboraldiari itxaropentsu begiratzeko balio dio txapel horrek eta udan Cas-

tellóko Espainiako Txapelketa da bere helburu nagusia.

Iñigo Ugena Julene Bouzo baino gorago iristen da, baina pertigaren laguntzarekin egiten du salto berak. Eta nola gainera! 18 urterekin 4. postua lortu zuen Ugenak Ourensen jokatu zen Pista Estaliko Espainiako Txapelketan eta zapo gozoarekin itzuli zen Galiziatik. Bere urteko markarik onena 4,65 metrokoa zen, baina ia 30 zentimetro gorago iritsi zen Ourensen, 4,91 metrora arte. Etorkizun handiko atleta da Ugena eta orain hurbilago ikusten ditu 5 metroak.

Ermuko hiru atleta hauek urte hasieran lortutako emaitzak herriko atleten mailaren froga txiki bat besterik ez dira. Atletismoak herrian duen maila handia da eta, batez ere, itxaropentsua.

Ekhi Velaz

SAGARDUI
poltsak

Zubiaurre, 29 - Ermua - 943 170305

**OSASUNA • ESTETIKA
EDERTASUNA**

Marfil

*Ile-apaindegi bat
baino gehiago!!*

Egokitutako burua
garbitzeko konketa

943 17 28 09 • Goienkale 12

KRABI

Ileapaindegia
Estetika

Tel: 943 03 17 56

Diputazio, 5

ERMUA